


NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

# Eraginkortasunaren izenean

**M**iles City (Montana, AEB), 1919ko abuztuaren 30ean. Maurice Hilleman mikrobiologoa jaio zen, munduan milioika hildako eragin zituen gripe pandemia betean. Askorentzat ezezaguna izan arren, beste askok diote historian bizitza gehien salbatu dituen pertsona dela.

Hillemanek, guztira, 40 bat txerto garatu zituen, besteak beste, elgorriaren, paperen, errubeolaren, astanafarreriarren, A eta B hepatitisen, meningitisaren eta pneumoniaren aurkakoak. Egungo txerto programetan gomendatu ohi diren 14 txertoetatik 8 hark eginak dira.

Paperen edo hazizurrien aurkako txertoa, esaterako, etxean bertan hasi zen garatzen. Jeryl Lynn alabak hazizurriak harrapatu zituen 1963an eta aitak parotiditis birusaren lagin bat hartu zuen haren eztarritik. 1967an lortu zuen txertoa, hau da, lau urteko lanaren ondoren. Eta 40 txerto merkaturatzeak, lan handiaz gain, prozedura burokratiko astunak -Hillemanek bereziki gorroto zituenak- eta baliabide ekonomiko handiak ere eskatu zizkion. Horregatik, Chicagoko unibertsitatean doktoretza bukatu bezain pronto eremu akademikotik hainbat lan eskaintza egin zizkion arren, denei uko egin zien, eta hasieratik industriara jo zuen.



WALTER REED MEDICAL CENTER

MAURICE HILLEMANN (1919-2005) MIKROBIOLOGOAK 40 TXERTO INGURU GARATU ZITUEN, INDUSTRIA FARMAZEUTIKOAREN BALIABIDEAK ERABILIZ.

Aurkikuntzak jendearengana ahalik eta lasterren iristea nahi zuen eta horretarako baliabideak ez zeuden akademian, industria farmazeutikoan baizik. Hainbat enpresetan aritu zen 1957an Merck kon-

painiarentzat lanean hasi zen arte. Eta han jardungo zuen erretiroa hartu bitartean.

Maurice Hillemanek milioika bizitza salbatzea zuen helburu eta milioika dolarrez gizendu zuen industria farmazeutikoa. ●



## Pentsamendu sinbolikoa lepoan

**C**alafell herriko Foradada kobazuloan (Tarragona, Katalunia) ikerlariek pieza bitxia aurkitu dute: duela 39.000 urteko eguzki-arrano baten erpe zatia, apaingarri modura erabili zutena.

Châtelperroniar garaikoa da, hau da, neandertal kulturaren azken aldikoa, eta lepoko baten alea zela diote adituek. Antzeko beste pieza batzuk ere aurkitu dituzte lehenago, neandertalek

ere pentsamendu sinboliko konplexuak zituztela frogatuz. Lehen pentsatzen zen apaingarriak *Homo Sapiensen* kontuak zirela eta neandertalgo gizakiak imitazioz hasi zirela halakoak erabiltzen. Pieza hauek, alez-ale, teoria hori iraultzen ari dira, abstrakzio sinbolikorako gaitasuna adierazten duten jarra horiek neandertalek sortu eta gizaki modernoek kopiatu zituztela pentsarazten baitute. ●